

CCOO, LAB, UGT, ESK ETA CSI KRITIKO ETA HASERRE DIREKTIBAREN AURREAN

## Sindikatuak 65 orduen direktiba europarraren aurka agertu dira

☐ Michelingo Enpresako Komiteak deituta langileek eta sindikatuetak ordezkariek enpresako atezaintzaren aurrean kontzentrazioa egin zuten eguerdian

Enplegu duin baten alde eta 65 orduen direktibaren aurka agertu ziren asteartean Europa osoko sindikatuak. Lasarte-Oriako Michelingo sindikatuetak ordezkariek eta langileek, Enpresa Komiteak deituta, lantegiaren aurrean elkartu ziren eguerdiko 13:15etatik 14:15etara, protesta egiteko.

Michelingo Enpresa Komiteak deituta sindikalistek eta langileek enpresaren atezaintzaren kontzentrazio bat egin zuten, ordu betez, euripean, 65 orduetako direktibaren aurka agertzeko. Azkeneko 91 urteetan langileek lortu dituzten eskubideen aurka baitoa. Europar Batasuneko lan-ministroek laneko denbora antolatzeko direktiba (2003/88/CE) aldatzeko proposamena onartu dute. Behin betikoz onartuz gero, estatu kide bakoitzari bere legedia aldatzeko aukera emango dio, gehienezko lan-astea oraingo 48 orduetatik (gurean 40) 60 ordu arte zabaltzeko, eta kolektibo batzuentzat, medikuena, esaterako, 65 ordu arte.

CCOO, LAB, UGT, ESK eta CSI sindikatuetak ordezkariek oso kritiko eta haserre agertzen dira direktiba europar honen aurrean: "Europako Parlamentuan oraindik bigarren itzulian tramitatu behar den proposamen horrek laneko eskubideen inboluzio larri bat errepresentatzen du, eta ia mende bateko historia



Michelingo sindikatuetak ordezkariek eta langileak atezaintzaren aurrean asteartean egindako kontzentrazioan.

duen langile-konkista batekin bukatzeko arriskua dakar. Izan ere, gehienez ere 48 orduko lan-astea, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) kotsakaturiko eskubide soziala, orain 91 urtekoa da. Gainera, testuak funtsezko eskubide bat urratzen du, negoziazio kolektiboarena, eta langileak libreaki hitzartuz bere eskubideei uko egiteko aukera sartzen du".

### Langileen eskubidea

Michelingo Enpresa Komiteko ordezkariek 65 orduen direktibak proposatzen

dituen bi ikuspuntu nabarmendu dituzte, langileen eskubideak urratzen baituzte: "batetik, lanaldia luzatzeko eukera ezartzen du, enpresariaren eta langile banakoaren arteko akordio soil baten bidez, edozein hitzarmen kolektibo bazterrerara utzita. Bestetik, langilea lantokian egon arren edo baliagai egon arren, lan efektiboa egitean ari ez bada, denbora hori laneko denboratzat ez hartzeko asmoa du".

Neurri hauek familiako bizitza eta langileen atsedena

na oztopatzen du sindikalisten ustez: "Zentzugabeko proposamen horrek familiako bizitza eta lanekoa errazteko helburua duen legearekin aurrez aurre egiten du talka eta langileen atsedena oztopatzen du. Enpresa multinazionalak eta europar eskuineko gobernu batzuk temati ari dira egungo europar eredu soziala deuseztatzea eta murriztu nahian".

Direktibari europarren erantzun sindikala eman nahi diote, "europar langileen eskubideen laboralen aurkako eraso handiena baita".•

EUSKARAREN  
MARATOIA 7



Euskararen VII. Maratoiko egitaraua asteleheneko zenbakiarekin batera argitaratuko dugu.

Korritzeko modukoa!



## M. Berasategi

Kafeak



Beti dago aukera  
kafe on bat hartzeko



### INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

### TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a....

### KAFE ARABIKOAK

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316  
LASARTE-ORIA

## Zorion-agurrak



**Kristina eta Jorge**

Ea bihar ez garen nahasten eta zuekin hasi eta bukatu egiten dugun eguna. Zorionak.



**Ane**

Zorionak pottotti. 5 muxu potolo familia guztiaren partetik.



**Beñat eta Irati**

Zorionak bikote eta muxu handi bat, Amaia eta gurasoen partetik.



**Alba**

Zorionak, printsesa, gurasoen partetik. Eta muxu handi bat.



**Unai**

Zorionak muxu potolo bat famili guztiaren partetik.



**Jon**

Zorionak zuri eta gurasoei ezkontz 10. Urteurrenean.



**Maialen**

16 urte, ari zea handitzen... Zorionak denon partetik. Muxu pilo bat.



**Aiora**

Zorionak etxekoekin partetik. Marrubizko muxu handi bat.

## Guardiak

### Ostrala, 10

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

### Larunbata, 11

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Igandea, 12

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Astelehena, 13

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

### Asteartea, 14

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

### Asteazkena, 15

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

### Osteguna, 16

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

## Telefonoak

### Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ..... 943 370000  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ..... 943 362442  
Ertzaintza ..... 943 288888  
SOS Deiak ..... 112

### Udala

Erregistroa ..... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ..... 943376182  
Kulturetxea ..... 943376181  
Bakezko epaitegia . 943371629  
Zerbitzu Sozialak . 943376179  
Zentro Zibikoa ... 943363958  
KIUB ..... 943361605  
Udal euskalgia ... 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ..... 943 376180

## Azoka txikia

### Eskaientza inmobiliarioak

• Pisu bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdigunean. Abala eskatzen da. Tel.: 686 674 552.

### Salerosketak

• Panderoa salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Salneurria, 60 euro Tel.: 943579565.

• Garajeko marra bat alokatzen da Atsobarren. Tel.: 943 363524.

• Garaje bat salgai Zumaburuan. Tel.: 943-372752

• Bigarren eskuko portatilak saltzen ditut. IBM, Toshiba... IBM Thinkpad T40, 40 Gb, 512 Mg. Wifi integratua, CD grabagailua, DVD irakurlea, 2 portu USB etab. Tel.: 695719084

• Salgai Megane 1.5 DCI. 132.000km (2003). Egoera oso onean, 6.000 euro. Tel.: 653 709737 (M<sup>o</sup>lxabel)

• Furgoneta salmentan. VW Eurovan T4 2.5 TDI 88 CV. 2002 urtekoa. 71.000 km. Lo egiteko prestatua: mahaia, ohea, kortinak. 5 plaza. Oso egoera onean. Tel.: 636 468056.

• Koltxoi ortopediko gogorra salgai. 1,20 x 1,90. la berria, 90 . Tel.: 686 93 27 14

### Lan-eskaientzak

• Geriatrian eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua zaintzeko prest dago. Profesionaltasuna eta tratu ona eskaientzen du. Carlos Tel.: 680-983527.

• Irakasle bat behar da DBH 2. mailako gazte bati laguntzeko. Tel.: 943 361304/ 943 371425

### Lan-eskariak

• Emakume arduratsua bat eskaintzen da etxeak garbitzeko, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko. Ordutegia: 12:30-15:30. Tel.: 678 853976

• Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko. Tel.: 634 780514

• Klase partikularak ematen ditut: ingelesa, matematika, euskara, lengua... Tel.: 636 935734.

• Andre gaztea eskaientzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko, astelehen, asteazken eta ostiralean goizeko 09:00etatik 12:00etara. Tel.: 661182178

### Oharretarako:

943 366858 • txintzarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4 • www.txintzarri.info

### Heriotzak

Perpetua Martinez Sainz, urriaren 3an 79 urte zituela.



## Gazte Informaziorako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

### Giza Eskubideen Mintegia

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatuta *Giza Eskubideetan oinarritutako IV. Mintegia* ospatuko da urriaren 24an eta azaroaren 21ean. Bertan parte hartzeko izena Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dekanatzan eman behar da eta mintegiak 10 euroko prezioa izango du. Informazio gehiago 943 015 937 telefono zenbakian edo amaia.intxaurreaga@ehu.es helbide elektronikoan aurkituko duzue.

### Zeinu Hizkuntza

Zeinu hizkuntzaren oinarritzko hasitapenei buruzko 18 orduko ikastaroa. Izena emateko epea urriaren 6tik 22ra Gipuzkoako Campuseko Kultur eta Kirol Bulegoa Zuzenbide Fakultateko beheko solairuan. Ikastaroa urriaren azkeneko astean hasiko da. Ordutegia: astelehenean 16:00-18:15 edo asteartetan 16:00-18:00

### Gaztemaniak kontzertua

Urriaren 22an Donostiako Gazteszena aretoan arratsaldeko 20:30ean Katamalo eta Bihotz

Bakartien Klubaren ekitaldia izango da. Sarreraren prezioa 7euro izango dira.

### Sagardo astea Igartubeitin

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kultura eta Euskera departamentuaren eskutik urriaren 9an hasi eta urriaren 16ra bitartean Ezkio-Itsason aurkitzen den XVI. mendeko Igartubeiti baserrian sagardo astea ospatuko da. Hori dela eta hainbat ekitaldi antolatuta dituzte: sagar zanaketa, antzezenak, sagar erakusketa... Informazio gehiago 943 722978 telefono zenbakian.

## Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria. 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintzarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Aitak semeari desafioa irabazi Xoxokan

■ Luis Mari Telleria nagusitu zen Urtzi Telleriaren aurkako proban. ■ Muguertza aita semeekin batera 100 kiloko harria 42 aldiz altxa zuten, sei enbor erdibitu, trontzan sei korte eta plazari 20 buelta eman

TXINTXARRI

Luis Mari Telleria Zelai Eder-ko harri jasotzaileak bigarren urtez jarraian irabazi du Urtzi semearen kontrako desafioa. Mutrikuko Mugerza aita semeekin batera jokatu zuten astelehenean eguerdian norgehiagoka Urnietako Xoxoka auzoan. Aitak Fausto Mugerza aizkolariekin osatzen du bikotea eta semeak Ugaitz Mugertzarekin. Aizkora eta harri jasotzeaz gain, trontzan eta korrika ere egin zuten eta azkenean gurasoak nagusitu ziren semeen aurka, baina alde txikia izan zen eta hurrengo urterako berriro botata dago desafioa.

Urnietako Xoxoka auzoko jaietan desafio polita izan zen aurreko astelehenean. Lasarte-Oriako Telleria aita-semeak harri jasotzen ari-zen dira eta Mutrikuko Muguertza aita-semeak aizkora. Beraz, aurreko urtean bezala, zaharrak gazteen kontra jokatu zuten desafioa, 100 kiloko harria 42 aldiz jaso, aizkora sei egur moztu, trontza-zerrarekin beste sei korte eman egurrari eta 20 buelta plazari. Hori izan zen egin beharreko lana.

Xoxokako festetan ekitaldi erakargarrienetakoa izan zen desafioa eta giro bikainean burutu zen, eguerdian, bertsolari eta trikitilariak ere bertan zirela.

Zazpi jasoaldi ematen zizkieten Luis Mari eta Urtzi Telleriak

harriari, eta gero egurretako bat erdibitu Fausto eta Ugaitz Mugerzak. Harri jasotzen eta aizkora lanak bukatu ondoren bi bikoteek batera sei korte eman zizkioten egurrari trontzarekin eta azkenik 20 buelta korrika plazari.

Lan handia izan zen baina zaharrek sasoiari daudela erakutsi zuten eta euren semeen aurka nagusitu egin ziren buelta bateko aldeaz. Beraz bigarren aldiz gurasoek irabazi dute norgehiagoka baina hurrengo urterako desafioa botata dute. Ea hirugarrenean gazteek lortzen duten.

## 12 urterekin 100 kilo

Bezperan, aurreko igandean bukatu ziren Urnietako Sanmielak Beñat Telleriaren marka berriarekin. Eguerdian plazan egin zen herri kirol erakustaldian 100 kiloko harria altxa zuen Telleria anai gazteak, Beñatek.

Aita Luis Mari Telleria eta Urtzi zein Iraitz anaiak bezala harri jasotzen hasi da Beñat Telleria eta 12 urterekin 100 kiloko harria bizkarreratu du. Horixe da momentuz bere markarik onena.

Urriaren 19an du harri jasotzaile sendi honek hurrengo eronka. Lasarte-Oriako euskararen maratoko egitarauaren barruan, lauek, aitak eta hiru semeek, egingo dute erakustaldia Okendoko plazan. •



Urtzi Telleria 100 kiloko harria jasotzen. Atzean Luis Mari Telleria. Ikusizun bikaina eskaini zuten.



## 30. urteurrena ospatzen

■ Biyak Baten Kale Nagusiko egoitzak 1978ko urriaren 8an ireki zituen ateak

Egun garrantzitsua izan zen asteazkeneko Biyak Bat Zaharren egoitzean, izan ere, Kale Nagusiko egoitzaren 30. urteurrena ospatu baitzen.

1978ko urriaren 8an hasi zen egoitza kokaleku berrian martxan, Kale Nagusian, eta hori gogoratzeko bi ekitaldi egin ziren asteazkenean.

### Meza eta merienda

Eguneko lehenengo ekitaldia goizeko hamaiketan izan zen, Brigitarren komentuan. Bertan On Ramon Uribeberriak

Biyak bat elkartearen bazkideen aldeko meza eskaini zuen.

Arratsaldean, berri, 18:00etan elkarteko abesbatzak emanaldi txikia eskaini zuen Zaharren egoitzean.

Ostean, bazkideei merienda eskaini zitzaion. Giro ederra sortu zen egoitzeko gela guztietan, nahiz eta ez zegoen ia lekurik. Izan ere, Mertxe Galdos elkarteko presidentek jakin arazi digunez, 400 bazkide baino gehiago bildu baitziren. •



Kirolotako agenda

■ FUTBOLA ■

**Larunbata 11**

**10:00etan**, Ostadar-Real Union B (Infantil txikiak) Michelin.  
**11:30ean**, Ostadar-Zumaiaiko (Emakumezkoen KDT F-11) Michelin.  
**13:00etan**, Ostadar-Kostkas M.B. (Kadeteen Ohorezko maila) Michelin.  
**15:30ean**, LOKE Texas Lasartearra-Intxurre (I. Jubenila) Michelin.  
**17:15ean**, Ostadar-Ordizia (II. Erregionala) Michelin.

**12:00etan**, Hernani-Ostadar (I. Jubenila) Zubipen, Hernani.  
**12:30ean**, Real Sociedad-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila) Zubietan.  
**15:30ean**, Intxurre-LOKE Texas Lasartearra (II. Erregionala) Elorri, Alegi.

**Igandea 12**

**15:30ean**, Amara Berri-Ostadar (Emakumezkoen Liga) Martutenen.

■ ARETO-FUTBOLA ■

**Larunbata 11**

**17:15ean**, Aldaz H.K.-Beti Arin (Euskal Liga) Kiroldegian.

**Igandea 12**

**11:00etan**, ISU Ieihoak-Pinturas Etxadi (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

■ FUTBOL 7 ■

**Larunbata 11**

**15:00etan**, Niasa-Corpa-Paulaner Trintxerpe (III. Maila) Zubietan.

■ PILOTA ■

**Ostirala 10**

**19:15ean**, Oiarpe I-Intza (Eskuz binaka III. Seniorra) Madalensoron (Oiertzun).  
**20:00etan**, Bergara-Intza (Eskuz binaka II. Seniorra) Bergarako frontoian.

Kirolotako oharrak

**Udal kirolgunea itxita**

Lasarte-Oriako Michelingo kirolgunea urriaren 12an, igandean, itxita egongo da. Egun honetan, kirolguneko erabiltzaileek herriko beste kirol instalakuntzak erabiltzeko aukera izango dute, baita Andoain (943 300 147) edo Usurbilgoako (943 372 498) ere.

# David Martin eta Gonzalo Sukunza Zakila Birako podiumean

■ Ostadarreko Atletismo taldeko kideek beste lasarteoriatarrekin batera Roncesvalles-Zubiri mendi maratoi erdian parte hartu zuten igandean



**TXINTXARRI**

**Aurreko asteburuan hainbat lasarteoriatarrek Zakila Bira Zumaiaiko maratoi erdian eta Roncesvalles-Zubiri mendiko erdi maratoiaren parte hartu zuten. David Martin eta Gonzalo Sukunza bigarren eta hirugarren postuak lortu zituzten Zumaiaiko proban.**

Aurreko larunbatean, urriaren 4ean, XII. Zakila Bira maratoi erdian 600 korrikalari baino gehiagok parte hartu zuten. Zumaiaiko Erribera kaletik abiatu zen lasterketa, Arroa, Iraeta, Oikina eta Aizarnazabaletik pasa ondoren, Zumaian bertan amaitu zen, guztira 20 kilometro egin behar izan zuten proba herriko honetan parte hartu zuten atletek.

Zoninat Mouloud marokoarra izan zen garaile 1:05:13 denborarekin eta bere atzetik Ostadarreko atletismo taldeko bi kide sartu ziren helmugan: bederati segundotan David Martin eta minutu bat beranduago Gonzalo

Sukunza. Zazpi atleta aritu ziren ia lasterketa osoan aurrean eta azken hiru kilometroetan atleta marokoarrak erritmoa aldatu eta aurrea hartu zuen. Baina, Ostadarreko atletismo taldeko bi kideek erritmoari eutsi zioten eta atzetik David sartu zen helmugan. Hirugarren postua Gonzalok lortu zuen.

Maratoi erdi honetan lasarteoriatar gehiagok parte hartu zuten, besteak beste: Andoni Illarramendi, Jose Luis Delgado, Mikel Calvo (Ostadar), Raul Tejado, Jose Ramon Altuna, J.M.Molina, Fede Otaegi (Ostadar), Ibon Urdepilleta (Ostadar), Ariz Corcuera (Ostadar), Igor Unanue, Pedro Goikoetxea, Xabier Prada (Ostadar) eta Jose Manuel Zarautz.

**Lasarte-Oriatik Roncesvallesera**

Lasarte-Oriako dozena bat atletek aurreko igandean, urriaren 4ean, Roncesvalles-Zubiri mendiko erdi maratoi herrikoian parte hartu zuten.

Pinreotako proba hone-

tan 724 korrikalari elkartu ziren Santiago Bidetik 21,5 km egiteko.

“Karrera oso leku politeatik pasatzen zen, bidexketatik eta zenbait herri zeharkatu genituen: Auritz, Auritz-berri, Linzoain, Erro eta Zubiri”.

Lasarteoriatarrek balorazio baikorra egin du: “mendiko karrera izateko ez zen gogorregia izan, baina ia denentzat estrena izan zen. Bi mendi handi igo genituen (Merkiritz eta Erroko gaina) eta beste ia dena lur eta bidexketatik egin genuen. Zailena eginda genuela uste genuenean, Erro mendiko gainean 17,5 kilometroan, Zubiriraino 3,3 kilometroetako jaitziera izugarria topatu genuen. Azken indarrak atera eta ziztu bizian jaitsi ginen, izugarriko arriskuarekin harriak, sustriak, zuloak... zeudelako. Azkenean, helmugara iritsi ginen pixka bat sofrituz, baina baita disfrutatuz”.

Pinreotako proba honetan parte hartu zuten lasarteoriatarrek ondorengoak izan ziren: Pello Artetxe,

Meltxor Artetxe, Jose Ramón Mendizabal, Xabier Esnaola, Juan Mari Sarobe, Juanan Centeno, Julen Ollokiegi, Josean Hernandez, Antonio Galan, Joseba Iparragirre, Josi Elvira, Mikel Izagirre, Iker Elorza eta Soto.

Ostadarreko atletismo taldeko kideek antolakuntza goraiatu dute, izan ere, izen ematearekin gazta bat, ardo botila bat jaso zuten eta proba amaitu ondoren, korrikalari guztientzat eta hauekin joandako senideentzat bazkari herrikoia antolatu zuten: “esan behar da ere, froga honek erreinu guztien dirulaguntza jasotzen duela”, diote parez, “Reino de Navarra, Gobierno de Navarra, Reino Gourmet... esponsor pilo bat ditu erdi maratoi honek”.

Ostadar atletismo taldekoek hainbat krosetan parte hartu duten arren, lehen aldia da horrelako irteera bat antolatu dutela eta pozik daude esperientziarekin, izan ere, hurrengo urtean errepikatuko dutela esan digute. •

## Egunero

### Erakusketa

EUSKARAREN MARATOIAK. Aurreko edizioetako argazkiak eta aurtengo edizio materiala ikusgai Jalgin, egun osoan.



## Ostirala, 10

### Hitzaldia

RAFA DIEZEK, LABeko idazkari ohiak, hitzaldia eskainiko du Xirimiri Elkartearen, iluntzeko 19:00etatik aurrera.

## Igande, 12

### Zinea

AHATATXO ITSUSIA haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3 euro. Kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.

## Asteazkena, 15

### Zinea

SIETE MESAS DE BILLAR FRANCES filma ikusgai Kutxa Zinezko bizitza egitasmoaren barruan. Kulturetxean, 17:00etan.



## Magia nagusi gaur Naiban tabernan

RAFAFA MAGOAREN ikuskizun magikoa Naiban tabernan gaur gauean.

OSTIRALA 10, 23:00ETAN  
NAIBAN TABERNAN  
GAZTELANIAZ

### Hitzaldia

AITAREN PAPERARI BURUZ arituko da Pilar Seminario psikologoa. Oti 7ra urteko umeen gurasoei zuzendua. Kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ.

### Ipuin-kontalaria

IPUIN BAT IRAKURRIKO DUGU? Koruko Zurutuza ipuin-kontalariaren saioa kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ.

## Osteguna, 16

### Hitzaldia

ETXE BARRUKO BORTIZKERIARI BURUZ jardungo da Xabier Arrazola, psikologo klinikoa. Kulturetxean, 19:00etatik aurrera. GAZTELANIAZ.

## Ostirala, 17

### Jam sesioa

DINBI DANBA talde izango da gonbidatua Jam sesiora. Bertan jazz-a eta blues-a jotzeko eta entzuteko aukera egongo da. Jalgin, 22:30ean.



## EUSKARAREN 7. MARATOIA

Animatu eta hartu parte!

Sartu  
[www.euskararenmaratoia.com](http://www.euskararenmaratoia.com)

web orrialdean eta eman zure izena!

Kamisetak salgai  
Ttakunen eta Jalgin.

Izena emateko edo informazio gehiago:  
Ttakunen  
(Geltoki kalea 4)  
edo 943 371448 telefonoan.



## Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara  
eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Esazu irratiko programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.  
Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

### Eguberrietako loteria

Oztanbide auzo-elkartek eguberrietako loteria salgai jarri duela jakinarazi nahi du, 43.607 zenbakia. Hiru eurotako partizipazioak (loteria 2,50 euro eta emaria 0,50 euro) Txema tabernan (Andapa kalean, Zumaburrun) eta Coviran supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzue.

Edozein zalantza argitze-ko, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefonoetara deitu dezakezue.

### Katxalin Elkarteak loteria

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteak, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udala Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotako da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkarterako izango da. Loteria hau eroste-

ko interesa dutenek KIUBn egin dezaketek, Ganbo kalean.

### Usurbilgo Lanbide Eskola

Urriaren 20an Officeko ikastaroa emango da langabe-tuentzat. Ikastaroa doan izango da. Informazioa Eskolan bertan izango duzue.

### Odol emaileen ospakizuna

Oria beheko ordezkariak emaile fideleki dominak eta trofeoak emateko ekitaldia ospatuko du urriaren 26an Izaskunen. Bazkaria Izaskun jatetxean antolatuta da eta menua 32 eurokoa da. Gonbita eskuratzeko Joxe Usabiar-garengana jo urriaren 12a baino lehen. Antolatzaileek menuaren zenbatekoa gonbitapena jasotzerakoan ordaindu behar dela jakin arazten dute.

### Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteak

Pintura eta marrazketa ikastaroak hasi dira eta leku dago

oraindik. Izena emateko Kultur Etxeko 2. solairuan astelehena, asteazkena eta ostirala 18:00etatik 19:00etara eta larunbata goizetan 9:30etatik 11:30etara

### Euskal Inauteriak

Euskal Inauterietako dantza taldea entsaioekin hasiko da urriaren 14tik aurrera, astearte eta ostegunetan arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Dantza gustokoa duenak edo dantza berriak ikasi nahi dituenak azaldu dadila Landaberri BHI (REM) eraikinerak.

### Biyak Bat elkartearen eskerrak

Lasarte-Oriako Biyak Bat Zaharren etxeak eskerrak eman nahi dizkie Adinduen Omenaldia, Urrezko Etzeiak eta egoitzaren 30. Urteurrenean parte hartu eta lagundu duten elkarte eta pertsoniei: Amalur trikitilari eskola eta Jon Lasa, Biyak Bat elkarteak abesbatza, Alboka abesbatza, Zero Sette akordeo orkestra,

Lasarte-Oriako Udala, Caja Rural de Navarra, La Caixa, Kutxa, Caja Laboral eta Zaharren etxe bolondresak.

### Oriatarren eskerrak

Oriako bizilagunen bazkariko antolatzaileek Pilar Catalina sopranoari, Amaia Dorronsoro organistari, Aburuza autozerbitzuari, Urrietako Ederne loredendari, Solano Trikitilari, Billabonako Eskola taldeari, Txitxardin Belta jatetxe eta honen sukaldari eta zerbitzaileei "prestatu zuten bazkari gozoagatik", Diario Vasco, Txintxarri eta Noticias de Gipuzkoa komunikabideei eta Ramon Uribetxeberria apaizari eskerrak eman nahi dizkie bere laguntzarengatik.

### Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behe

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



## ‘Elektro-pop musika melodikoa egiten dugu’

Ramon Perez lasarteoriatarra Never Translate taldeko kidea da eta *Alone in my word* diska aurkeztu du irailaren 18an Malagako Fnac dendaren inaugurazioan. Egun batzuetarako herrira bueltatu da eta Malagara bueltatzeko gauzak prestatzen ari zela, hau da bezperan, berarekin diskaren, aurkezpenaren eta ekoizpenaren inguruan hitz egiteko aukera izan dugu.

Iztziar CARRASCO

### Nolako harrera izan duzue?

*Alone in my word* gure lehen diska da eta Fnac dendan aurkezteko aukera eskaini digute eta benetan aukera oso ona izan da. Aurkezpenean Malagako diputazioako eta udaletxeko agintariak egon ziren, Fnaceko presidentea ere bereziki inauguraziora etorri zen... 800 pertsonentzako festa bat izan zen. Promozio ona izan da. Musikaren zirkuituak horrelakoak dira, beraien gustukoa bazara kontratatzen zaituzte, eta irriti, prentsa eta telebistetarako kontratatzen zaituzte, beraz bultzada oso ona izan da.

### Aurkezpenak ateran bat ireki al dizkio taldeari?

Aurkezpena egin ondoren bost telebista lokaletarako kontratua itxi dugu: Televisión Marbella, TV Malaga, Onda Azul, TV San Pedro... Malagak azalera txikia duen arren, 4 miloi pertsona bizi dira, biztanleko handia da. Hurrengo urratsa Canal Sur da, azarorako ea zerbaite egiten dugun hauekin, negoziaketetan ari gara.

Oso zaila da kontzertuak besterik gabe lortzea. Horregatik, garrantzitsua da pro-

mozio on bat egitea. Amaierarik ez duen kate bat da: ez zaituzte ezagutzen, ez dago promoziorik, ez dago promoziorik, ez zaituzte ezagutzen, ez zaituzte ezagutzen, ez zaituzte kontratatzen...

### Nola defeniuko zenuke egiten duzuen musika?

Electro-Pop, 80. hamarkadako musika bezala definituko nuke, melodia goxoekin, memorizatzeko, entzuteko eta abesteko errazak. Pink Floyd, Mike Oldfield, Genesis... entzun dugun musika honen eragina ikusi daiteke gure lanean.

### Zer aurkitu dezakegu *Alone in my word* diskoan?

Marbellari omenaldi bat egin nahi genion, artea eta musikaren ikuspuntutik eta ez telebistan ateratzen den Marbellari. Hiru orritako diska da. Kanpotik Marbellako ilustrazio alegoriko bat ikusi daiteke. CDan 10 konposizio eta bertsio bat entzun daitezke. Egiten dugun musika elektronikoa da, kutsu sinfonikoekin eta efektu asko dituen arren, oso musika goxoa da.

DVD bat sartu dugu ere eta bertan Pedro Markezek egiten digun bideoklipa ikusi

daiteke. Presa genuen lehen diska sorta kaleratzeko, baina hurrengo tiradetan DVD horri gauzak gehitu nahi dizkiogu: bideo klip gehiago, taldearen elkarrizketa bat, zuzeneko kontzertu bat...

### Letrak ingelesez landu dituzue, zergatik?

Talde anglosaxoi gara. Europar publikoak interesatzen zaigu eta Frantzia, Dinamarka, Italia, Alemania, Ingalaterra... atera nahiko genuke.

### Nola sortzen da taldea?

Grabazio estudio bat nuen hemen Lasarten, baina, arrazoi desberdinak zirela medio maleta hartzeko garaia iritxi zitzaidan. Malagara joan nintzen eta han Cristian ezagutu eta bien artean hasi ginen talde honekin. Gero Raul sartu zen eta azkeneik, Luis bideo-DJa dago. Ekitaldietan gure atzean pantaila bat daukagu eta bideo artista batek gure lana irudiekin betetzen du. Gure lana ezin da irudirik eta argirik gabe ulertu.

### Lan honetan konposizioan, moldaketa, ekoizpenean, teklatuan... aritu zara.

Ordenadorez lana egiten dugu batez ere. Produktzio lana oso motela da, baina

etxean lana egiten dugunez, abantaila da, estudio batean berriz, denbora mugatua da, alokairua ordaindu behar delako. Cristian eta biok produktzioa egiten dugu eta bukaeran Raulek ohasak sartzen ditu. Nik musika lantzen det eta Cristianek melodiak eta letrak.

### Chivo Record ekoiztetxearekin lana egiteak maila artistikoan mugatu al zaituzte?

Malagako seilu independientea da. Lagun batzuen bitartez ezagutu ginen eta bi urtetako lana izan da. Koproduktzioa da. Hau da, taldeak dirua jartzen du, ekoizpenean eta diseinuan parte hartzen du. Ordaintzeak askatasun gehiago ematen dizu zure produktua defendatzeko. Modu honetan, taldeak ekoiztetxeak baino gehiago arriskatzen du, baina produktua defendatzeko aukera ematen du.

### Bideoklipa zeinek egin du?

Pedro Markezek egin digu. Irudimen asko du, irudiak hartu eta komikietan bihurtzea gustoko du. Sleepy Hollow asko gustatzen zaio. Grabaketa oso sinplea izan zen. Ez da beharrezkoa izugarriko aurrekontu bat lan on bat egiteko.

Idea bat, kontzeptu bat eta lan ordu asko, besterik ez. Bideo klipa hau zine txapelketetara aurkeztuko dugu. Promozio musikalean inoiz ez dakizu aurrera aterako den audioarengatik edo bideoklipak sari bat jaso duelako. Ikusentzunezko produktuekin aukera zabalagoa da.

### Anekdotarik?

Malagako Larios oinezkoentzako kalean tipo bat kotxez sartu zen, suizida bat, eta hamalau pertsona harrapatu zituen. Raul bertako enpresa batean lan egiten du kamioi batekin.

Lana amaitzen ari zela handik pasa zen kamioiarekin eta ikusi zuen tipo hau oinezkoen kaletik barrena zihoala. Kamioia kalean gurutzatu eta kotxea gelditu zuen.

Geroztik, malagako heroea bihurtu da, Tele 5, Antena 3 eta horrelakoetatik deitu diote eta taldearen promozioa egiteko aprobetxatu du aukera.

### Gustura al zaude Marbellan?

Bai. Baina, ez du esan nahi ez naizenik bueltatuko. Ez zara herritik ateratzen inoiz ez bueltatzeko. Hori errote bat da. Lekuak ezagutzeko daude eta mundua bidaiatzeko. •